

2014.02.10
LURRALDE ANTOLAMENDUKO 7. bilerako AKTA

Parte hartzaileak: KF, AG, XI, DE,
M, IA, A eta OA

Bileraren gai ordena:

- 1.- Hezkuntzako bilera
- 2.- Beko Kaleko hirigintza proiektuaren baldintzak
- 3.- Bidegorria
- 4.- Hondakinak
- 5.- Mantenu programa

1. HEZKUNTZAKO BILERA

2014ko urtarrilaren 28an Hezkuntza Saileko zuzendari, idazkari eta obretako zuzendariarekin izandako bileran ondorengo aipatu ziguten:

- Itsasondoko eskolan haur-kopurua jaisten ari da. Garai batean 70 haur bazeuden, gaur egun 59 daude. Etorkizunean gehiago jaitsiko den aurreikuspena dago, 40-50 haur izango omen ditu.
- Aurreikuspenak kontuan izanda, ez dago eskola handitzeko beharrik, egoera onenean ez dagoelako ordezkatzeko beharra bakarrik du.
- Beraz, ez dago Hezkuntza Saileko lehentasunen artean. Itsasondoko eskola berria eraikitzeke planteamendua epe ertain-luzerako da.
- Orain arte hitzartuta dituzten eskola aldaketak 2020-2021. urterako bukatzeko aurreikuspena omen dute. Krisia sortu baino lehen 40 milioi euroko urteko aurrekontua zuten, gaur egun 14. Hortaz, egoera ekonomikoa aldatu ezean, 2021. urterarte Itsasondoko eskola berria ez litzake lehentasunen artean egongo.
- Ondoren berriz ere aztertu beharko litzake ze egoeratan dagoen eta lehentasunen zerrenda egin.
- Hala ere, aipatu zuten udalak oruberren bat prest izatea komenigarria dela, izan ere, ez baitakite noiz egongo den eraikitzeke aukera (ahal bada orube aproposa).

- Eskolaren programa gehiago zehaztu nahi bada, Jose Sobrinori idazteko esan digute, "programa de necesidades" eskatzeko.

2. BEKO KALEKO HIRIGINTZA PROIEKTUAREN BALDINTZAK

Axier eta Oihanek Beko Kaleko hirigintza proiekturako zehaztutako baldintza/galderak azaldu dira:

- Bidegorria pasako da Beko Kalen?
- Zentzu bakarra edo bikoa izango da? Zein da erabaki honen ondorioa: rotonda, irteera berria...
- Aparkalekuak kontuan izan behar dira. Zenbat jarriko diren, ezker-eskuin jarriko diren...
- Gaur egungo espaloia mantenduko da? Estutu agian aparkaleku gehiago jartzeko?
- Iberdrola eta Telefonica hodiak soterratuko dira?

- Beko Kalen dauden zubietan tarte handiagoa eskatuko da?
- Argiteria berria ezarriko da?
- Ze altzari jarriko dira?

3. BIDEGORRIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak egin duen Bidegorriaren proiektuaren nondik norakoak azaldu dira. Ondorengo galderak sortu dira:

- "30 gunea" ezarri daiteke herri osoan?
- San Juan aldean zebra bide berria egin daiteke?
- Frontoiko zebra bidea nola?

Datorren bilerarako 3. galderari buelta pare bat emango zaizkio.

4. HONDAKINAK

Sasietakoekin bilera egin da eta azkenean datuak jaso dira: Itsasondo gainontzeko herriak baina hobeto dago. %25 defizita dago, hau da, 71.000 € kostatzen da eta 54.000 € ordaintzen dira; beraz, 17.000 € ko gabezia dago. Hondakinen bilketa (baja) da garestiena eta tratatzea (alta) merkeagoa da. Defizita txikitze aldera zer egin daitekeen aztertu behar da, hainbat proposamen daude baina aztertu egin behar dira: konposta udalaren gain hartzea, ordutegia gauetik goizera aldatzea, aste-bukaeratan ez jasotzea...

Irailean esleipen berria egingo da eta martxoan urtebete beteko da sistema berriarekin. Hori dela eta, batzar bat egitea proposatzen da egoera zein den eta ze aukera dauden azaltzeko.

5. MANTENU PROGRAMA

Orain arte egon den programak inbentarioa eta mantenu programa zuen. Inbentarioaren datuak sartuta daude, baina mantenuarenak ez. Programa pixka bat mugatua dago eta programa berriak aztertzen ari dira.